


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SALAMANKA PASEALEKUA 5



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, erdisotoa, bastardea eta sei goi oin dituena, azken biek fatxada planoan dauden jasodurak ematen dute, ez dira jatorrizkoak. Harlanduzko fatxada, 5. eta 6. oinak izan ezik. Konposizio simetriko, behe oinean atariaren posizioak aldatua. Fatxada hiru horma ataletan banatzen duten pilastrak ditu, eta baoak puntu erdiko arkuekin errematatuta daude behe oinean eta laugarren oinean.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.